

TYRANNOSAURUS-REX



NARRASTI TIRANOA

Dinosaurio guztien artean miretsiena da. Burua eta hortzak oso handiak ziren gorputzaren neurriarekin alderatuta. Beso oso txikiak zituen, eta bina hatz besterik ez. Gehieneko abiadura 35 eta 45 km/h bitartekoa zen; korrikalari olinpikoa baino azkarragoa zen. Egunean 2 kg. irabazten zituen eta, beraz, bizitzako 30 urteetan 6 tona baino gehiago pisatzen zituen.

BADAKIZU PERTSEKUZIOAN 4 M-RA ARTEKO ZANGOKADAK EMAN ZITZAKEELA?

REPTIL TIRANO

Es el dinosaurio más admirado de todos. Su cabeza y dientes eran muy grandes respecto al tamaño de su cuerpo y, sin embargo, sus brazos eran diminutos y sólo tenían dos dedos. Su velocidad máxima oscilaba entre 35 y 45 km/h, más rápido que un corredor olímpico. Aumentaba 2 kg. de peso al día, por lo que a lo largo de sus 30 años de vida llegaba a pesar más de 6 toneladas.


¿SABÍAS QUE EN UNA PERSECUCIÓN PODÍAN DAR ZANCADAS DE HASTA 4 M?

AROA: GOI KRETAZEOA
PERIODO: CRETÁCICO SUPERIOR

NEURRIA: 10 ETA 14 BITARTEKO LUZERA
MEDIDA: ENTRE 10 Y 14 M DE LARGO

PISUA: 4 ETA 7 TONA BITARTEAN
PESO: DE 4 A 7 TONELADAS

ELIKADURA: HARAGIJALEA
ALIMENTACIÓN: CARNÍVORO



CARNOTAURUS



ZEZEN HARAGIJALEA

Dinosaurio harraparia, haragijalea eta hankabikoa zen. Begien gainean bi adar eta aurreko gorputz-adarretan hiruna hatz zituen, oso txikiak, gorputzaren neurri handiarekin alderatuz gero. Garezur indartsua zuen, eta beste dinosaurio batzuek ez bezala, aurrerantz begiratzen zuen, hau da, ikusmen binokularra zuen, eta hautemate handia. Usaimena oso garatuta zuen.

**BADAKIZU ADARRAK ARREK SOILIK
ZITUZTELA PENTSATZEN DELA?**

TORO CARNIVORO

Era un dinosaurio depredador, carnívoro y bípedo. Tenía dos cuernos sobre los ojos y unos miembros delanteros con tres dedos extremadamente reducidos en comparación con su enorme tamaño. Su cráneo era fuerte y sus ojos, a diferencia de otros dinosaurios, miraban hacia el frente, indicando con ello que tenía visión binocular y una gran percepción. Su olfato estaba muy desarrollado.



**¿SABÍAS QUE SE CREE QUE SÓLO
TUVIERON CUERNOS LOS MACHOS?**

**AROA: KRETAZEOA
PERIODO: CRETÁCICO**

**NEURRIA: 9 M LUZE
MEDIDA: 9 M DE LARGO**

**PISUA: 1,5 TONA
PESO: 1,5 TONELADAS**

**ELIKADURA: HARAGIJALEA
ALIMENTACIÓN: CARNÍVORO**



PTERANODON



HORTZ GABEKO HEGALDUNA

Narrasti hegalaria honek ia ez zuen isatsik eta buruak gandor itxurako luzapena zuen. Oso hanka ahulak zituen eta, beraz, ez dago argi ea ibiltzeko gai ote zen. Arrainak jaten zituen, eta seguru asko moko luzea pala moduan erabiltzen zuen itsasoaren gainetik hegan egiten zuen bitartean arrainak harrapatzeko. Mokoaren azpian zuen poltsa batean arrainak gordetzen zituen, eta buruaren atzealdeko gandorrari esker mokoaren eta arrainen pisua orekatzen zuen.

**BADAKIZU BATZUK HEGAZKIN
TXIKI BAT BAINO HANDIAGOAK ZIRELA?**

ALADO SIN DIENTES

Este reptil volador carecía prácticamente de cola y su cabeza tenía una prolongación a modo de cresta. Sus patas eran tan débiles que existen dudas de que pudiera andar. Su dieta era piscívora, y seguramente empleaba su largo pico, como una pala, para capturar peces mientras volaba cerca de la superficie del mar. Una bolsa bajo el pico le permitía almacenar pescado, y su gran cresta en la parte posterior de la cabeza le ayudaba a equilibrar el peso del pico y de la pesca.

**¿SABÍAS QUE ALGUNOS ERAN
MÁS GRANDES QUE UNA AVIONETA?**

**AROA: KRETAZEOA BERANTIARRA
PERIODO: CRETÁCICO TARDÍO**

**NEURRIA: 9 M-RA ARTEKO HEGO-LUZERA
MEDIDA: HASTA 9 M DE ENVERGADURA**

**PISUA: 20 KILO
PESO: 20 KILOS**

**ELIKADURA: ARRAINJALEA
ALIMENTACIÓN: PISCÍVORO**



1,80 M

EUOPLOCEPHALUS



ONDO KORAZATUTAKO BURUA

Isats hilgarria zuen, mailu baten antzekoa, eta horren eraginez, eraso egin nahi zioten harrapari guztiei asmoa burutik kentzen zitzaien. Oso gorputz zabala zuen, hezurrezko plaka zorrotzez estalita. Garezur laua zuen eta ahoan moko moduko zerbait zuen. Hortz ahulak zituen eta, beraz, ziurrenik landare bigunak, kimuak eta baiak jaten zituen. Hanka indartsuak zituen, eta horri esker, azkar mugitzen zen.

**BADAKIZU HEZURREZKO BETAZALEK BEGIAK
ERASOTZAILEEN ATZAPARRETATIK BABESTEN ZITUZTELA?**

CABEZA BIEN ACORAZADA

Tenía una cola mortífera, similar a un mazo, que disuadía a cualquier depredador que quisiese atacarle. Su cuerpo era muy ancho y estaba cubierto por unas placas de hueso puntiagudas. El cráneo era plano y tenía una especie de pico en la boca, aunque sus dientes eran débiles, por lo que probablemente se alimentaba de vegetación suave, brotes y bayas. Sus patas eran muy fuertes y le permitían desplazarse con rapidez.

**¿SABÍAS QUE SUS PÁRPADOS ÓSEOS PROTEGÍAN
SUS OJOS DE LAS GARRAS DE SUS ATACANTES?**

AROA: GOI KRETAZEOA
PERIODO: CRETÁCICO SUPERIOR

NEURRIA: 6 M LUZE
MEDIDA: 6 M DE LARGO

PISUA: 2,5 TONA
PESO: 2,5 TONELADAS

ELIKADURA: BELARJALEA
ALIMENTACIÓN: HERBÍVORO



6 M



BRACHIOSAURUS



BESODUN NARRASTIA

Dinosauro handienetakoa eta astunenetakoa zen, animalia erraldoia. Jirafen antzeko gorpuzkera zuen, lepo luze-luzearekin, eta horri esker, zuhaitzen adaburu garaienetara iristen zen. Aurreko hankak, nahiko bereziak, atzekoak baino luzeagoak ziren, eta beti artez izaten zituen, tolestuz gero pisuarengatik apurtu egingo zitzaizkion eta.

**BADAKIZU GAREZURRA ZULOZ BETETA
ZUELA PISUA MURRIZTEKO?**

REPTIL CON BRAZOS

Era uno de los dinosaurios más grandes y pesados, un animal gigantesco. Su constitución era parecida a la de las jirafas, con un larguísimo cuello que le permitía alimentarse de las copas más altas de los árboles. Las patas delanteras, no muy corrientes, eran más largas que las traseras, y siempre las mantenía rectas, ya que si las hubiese doblado se le habrían roto por el peso.


**¿SABÍAS QUE SU CRÁNEO ESTABA LLENO
DE ORIFICIOS PARA REDUCIR SU PESO?**

AROA: JURASIKOA
PERIODO: JURÁSICO

NEURRIA: 25 M-RA ARTEKO LUZERA
MEDIDA: HASTA 25 M DE LARGO

PISUA: 50 TONA
PESO: 50 TONELADAS

ELIKADURA: BELARJALEA
ALIMENTACIÓN: HERBÍVORO



PARASAUROLOPHUS



GANDORDUN NARRASTIA

Agian gandra gauzarik deigarriena zen, 1,8 metrora arteko luzera izan zezakeen eta. Gandor hori soinuak ateratzeko eta espezie bereko dinosauroekin komunikatzeko erabiltzen zuela pentsatzen da. Isats luzea zuen, laua alboetatik, eta horrek esan nahi du agian igeri egiteko erabili zuela, alde batetik bestera mugituz, arrain baten hegatsa balitz bezala. Ia ez zeukan beste defentsa baliabiderik, eta beraz hori abantaila izan zitekeen erasotzaileen aurrean.

BADAKIZU MEHATXATUTA SENTITZEN ZENEAN URETARA JOTZEN ZUELA IHES EGITEKO?

REPTIL CON CRESTA

Su cresta era quizás lo más llamativo, podía llegar a medir 1,8 metros, y se cree que la utilizaba para producir sonidos y comunicarse con dinosaurios de su misma especie. Su cola era larga y aplanada por los lados, lo que indica que pudo haberla usado para nadar, moviéndola de lado a lado como si fuera una aleta de pez. Estaba casi desprovisto de otros medios de defensa, así que esto podía darle ventaja frente a sus agresores.


¿SABÍAS QUE CUANDO SE SENTÍA AMENAZADO SE DIRIGÍA AL AGUA PARA ESCAPAR?

AROA: GOI KRETAZEOA
PERIODO: CRETÁCICO SUPERIOR

NEURRIA: 9 M LUZE
MEDIDA: 9 M DE LARGO

PISUA: 2 TONA
PESO: 2 TONELADAS

ELIKADURA: BELARJALEA
ALIMENTACIÓN: HERBÍVORO



PACHYCEPHALOSAURUS



BURU LODIDUN NARRASTIA

Oso gazezur lodia zuen, goraguneekin. Oso eraginkorra zen arren arteko erasoetarako, baina espazio gutxi zuen burmuinerako. Burmuina oso txikia zen buruaren neurriarekin alderatuta. Usaimena oso garatuta zuen eta begiak teniseko pilota baten neurrikoak, buruaren bi aldeetan. Hori dela eta, norabide guztietan erraz begiratu eta harraparietatik erraz ihes egin ahal zuen.

**BADAKIZU BURUKO HEZURRAK
25 CM-KO LODIERA ZUELA?**

REPTIL CON CABEZA GRUESA

Tenía el cráneo muy grueso y con protuberancias, eficaz para las embestidas entre machos, pero que dejaba poco espacio para su cerebro, muy pequeño en proporción al tamaño de su cabeza. Se cree que tenía un sentido del olfato muy desarrollado y los ojos del tamaño de una pelota de tenis, situados a ambos lados de la cabeza, por lo que podía mirar en todas las direcciones con facilidad y así huir más fácilmente de los depredadores.


**¿SABÍAS QUE EL HUESO DE SU
CABEZA MEDIA 25 CM DE GROSOR?**

**AROA: GOI KRETAZEOA
PERIODO: CRETÁCICO SUPERIOR**

**NEURRIA: 8 M LUZE
MEDIDA: 8 M DE LARGO**

**PISUA: 2 TONA
PESO: 2 TONELADAS**

**ELIKADURA: BELARJALEA
ALIMENTACIÓN: HERBÍVORO**



TRICERATOPS



HIRU ADARDUN AURPEGIA

Triceratopsa taldean bizi zen. Elikagai nagusia landareak eta zuhaixkak ziren. Landareok erraz lortzen zituen, moko itxurako muturrari esker garai hartan hain ugariak ziren landareak puskatu eta jan zitzakeen eta. Hanka sendoak zituen, eta oineko behatzak moztuta. Garai hartako dinosauro belarjale nagusia izan zen, eta taldean ibiltzen zenez, harrapari handienek ere eraso egiteko zalantzak izaten zituzten.

**BADAKIZU BURUZAGIA HAUTATZEKO
ADARREKIN PULTSUAK EGITEN ZITUZTELA?**

CARA CON TRES CUERNOS

El Triceratops vivía en manadas. Su alimento principal eran las plantas y arbustos que conseguía con facilidad, ya que su hocico, en forma de pico, le permitía romper y comer la vegetación que tanto abundaba en su época. Tenía unas patas robustas y los dedos del pie seccionados. Fue el dinosaurio herbívoro dominante de su tiempo y, como iba en manada, incluso los más grandes depredadores dudaban a la hora de atacarle.


**¿SABÍAS QUE PARA DECIDIR QUIÉN ERA
EL JEFE ECHABAN PULSOS CON LOS CUERNOS?**

**AROA: GOI KRETAZEOA
PERIODO: CRETÁCICO SUPERIOR**

**NEURRIA: 9 M LUZE
MEDIDA: 9 M DE LARGO**

**PISUA: 6 TONA
PESO: 6 TONELADAS**

**ELIKADURA: BELARJALEA
ALIMENTACIÓN: HERBÍVORO**



STEGOSAURUS



TEILATUDUN NARRASTIA

Belarjalea zen. Isatsean zituen 60 zentimetrora arteko lau arantzak eta bizkarreko plakak ezaugarri nagusiak ziren. Plaka horiek bizkarrean bi ilaratan kokatuta zeuden, txandaka, eta modu bertikalean. Plakak kolore bizikoak izan zitezkeen haietarantz odola ponpatuz gero, eta hala jokatzzen zuen gorteiatzeko eta beste dinosauro batzuen erasoetatik babesteko. Jakiak ez zituen mamurtzen eta jandakoa hesteetan hartitzen zenez, plaketatik beroa botatzen zuten, kiskalita ez erretzeko.

**BADAKIZU STEGOSAURUSAREN BURMUINA
GAZTAINA BATEN NEURRIKOA ZELA?**

REPTIL CON TEJADO

Era herbívoro y se caracterizaba por sus cuatro púas de hasta 60 centímetros en la cola y las placas de su espalda. Estas se distribuían en el lomo en dos filas, de forma alterna y en posición vertical. Podían teñir de vivos colores sus placas bombeando sangre hacia ellas, algo que utilizaban para el cortejo o para defenderse del ataque de otros dinosaurios. No masticaban, y como lo que ingerían fermentaba dentro de sus intestinos, emitían calor a través de las placas para evitar morir achicharrados.

**¿SABÍAS QUE EL STEGOSAURUS TENÍA
EL CEREBRO DEL TAMAÑO DE UNA CASTAÑA?**

AROA: GOI JURASIKOA
PERIODO: JURÁSICO SUPERIOR

NEURRIA: 6 ETA 9 M-RA ARTEKO LUZERA
MEDIDA: DE 6 A 9 M DE LARGO

PISUA: 2 TONA
PESO: 2 TONELADAS

ELIKADURA: BELARJALEA
ALIMENTACIÓN: HERBÍVORO



DEINONYCHUS



ATZAPAR IZUGARRIA

Korrikalari arin, bizkor eta azkarra zen eta isats zurrun eta atzerantz luzatuari esker orekari eusten zion harrapakinei eraso egiten zienean. Atzeko hanka bakoitzeko behatz batean bi atzapar hilgarri zituen, kurbatuak, luzeak eta zorrotzak. Gainerako behatzetakoak askoz txikiagoak ziren. Taldean ehizatzen zuen, eta bera baino handiagoak ziren animaliak hiltzeko taldekideak lankidetzan aritzen ziren. Beso luzeak harrapakinei eusteko erabiltzen zituen.

**BADAKIZU ATZAPARRA BETI ALTXATUTA
IZATEN ZUELA ZORROTZ MANTENTZEKO?**

GARRA TERRIBLE

Era un corredor ligero, ágil y veloz y su cola, rígida y estirada hacia atrás, le ayudaba a mantener el equilibrio cuando atacaba a sus presas. En un dedo de cada pata trasera tenía dos enormes garras mortíferas, curvas, largas y afiladas mientras que las de los demás dedos eran mucho más pequeñas. Cazaban en grupo, cooperando para dar muerte a animales mucho más grandes que ellos, y utilizaban sus largos brazos para sujetar a sus presas.

**¿SABÍAS QUE SIEMPRE TENÍA SU GARRA
ALZADA PARA QUE NO PERDIESE EL FILO?**

AROA:	KRETAZEOA
PERIODO:	CRETÁCICO
NEURRIA:	3,5 M LUZE
MEDIDA:	3,5 M DE LARGO
PISUA:	80 KILO
PESO:	80 KILOS
ELIKADURA:	HARAGIJALEA
ALIMENTACIÓN:	CARNIVORO

